



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA  
2016/02/16

## **Bentazarrako tunela eregin eban ABEE-ak 22.000 euro inbertidu ditu konponketetan, sutearen kontrako plantxa bat lurrera jausi eta gero**

A-8 autopistako Bentazarrako tunelaren obraren ardurea dauen Aldi Baterako Enpresa Elkarteak (ABEE) 22.000 euro bideratu ditu aitaturako bide azpiegitura aztertzeko eta konpontzeko lanetara, joan dan abenduan sutearen kontrako plantxa bat lurrera jausi ostean, Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako diputatuak Batzar Nagusietako batzorde horretan gaur azaldu dauenez.

Pradales Bizkaiko Talde Popularrak (PP) eskatuta agertu da Batzar Nagusien aurrean, tunel horretan egin diran konponketa lanak azaltzeko. Lanok, 2013an trafikorako zabaldu zan obraren ardurea izan eban ABEEak egin ditu, berau “bermealdian” egoalako, Foru Diputatuak azaldu dauenez. Sutearen kontrako plantxagaz gertatutakoaren errazoia, Pradalesen berbetan, “junturak behar dan moduan ez egitea izan da, Bizkaiko Tunelen mantentze lanetako zerbitzuak berak egiten dituan azterketen barruan aurkitu zan bizio ezkutua”

### **BIDESARIEN POLITIKEA**

Beste alde batetik, Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako diputatuak, Artxandako tuneletako, AP-8ko eta Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarrako bidesarien kopuruak eguneratzen dituen foru dekretuak be azaldu ditu Batzordean, bakotxari jagokon Memoria Ekonomikoagaz batera.

Bere agerraldiaz baliauta, Pradalesek gogoratu dau bere Saila Aldundiaren esku dagoan Bide Sarearen “tarifen ereduaren azterketan” ari dala beharrean, eta hori Batzar Nagusien aurrean aurkeztuko dala. Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Foru Diputatuaren eretxiz, ekimen horren helburu nagusia, “erabiltzaileek jasaten dituen kostuak zelan arindu daitekeguzan ikustea da, iraunkortasun ekonomikoa eta etorkizunerako inbertsinoak bermatuz”.

Zigor Isuskiza EH Bilduko bozeroaleak kritikau egin dau Aldundiaren gaur egungo bidesari sistema, bere eretxiz “bidebakoa eta luzeegia” dalako. “Autortu behar dozue autopista batean kobretan aritu zariela beste batean gastetan zenduena, eta erabiltzaile batzuei kentzen ibili zariela beste batzuek ordaindu ez daien”, esan dau Isuskizak, eta eskaria egin deutse Pradalesi eta EAJ-PNV taldeari “gizarte mailako eztabaidaren terminoak onartu eta sortu daben arazo itzela bideratzeko konpromisoa hartu daien”.

EH Bilduko ordezkariak esan dauenez “2016an AP-8 autopistea behar dan moduan errentabilizauta egongo da, bertako bidesariak irabaziak sortzen ditue eta gaur egungo sistemak jarraitzen badau datozen urteetan 1.200 milioi euro baino gehiago sortuko ditue. Sistema horregaz berberagaz, SuperSur izenekoak ia diru kopuru bera galduko dau, 1.050 milioi”. Koalitzino abertzalearen ordezkariak adierazo dauenez, Interbiaken zorra “875 milioi eurokoa da”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Bere erantzunean, “AP-8 autopistea amortizauta dagoanik eta irabaziak sortzen dituanik guzurrea dala” adierazo dau Imanol Pradalesek. Jon Andoni Atutxa Batzar Nagusietako Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV) taldeko bozeroaleak, bere aldetik, EH Bilduko bozeroaleak esandakoa “mantrea” dala esan dau.

Bere esku-hartzean, Jesús Isasi PP-ko ordezkariak esan dau tarifen igoerek “ez dituela errespetetan igoerak Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) kontuan izanda egitea agintzen dauen Foru Araudia”. Jon Andoni Atutxa Batzar Nagusietako Euzko Abertzaleak taldeko bozeroaleak eta Joaquín Colmenero Euskal Sozialistak (PSE-PSOE) taldekoak hori ez dala egia esan dabe.

Neskutz Rodríguez Podemos Bizkaia taldeko bozeroaleak, errepide horreen erabiltzaileentzako beherapenen eta hobarien kudeaketa hobea eskatu dau. Bere eretxiz, horreek “beranduegi” apliketan diralako.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA  
16/02/2016

## **La UTE constructora del túnel de Bentazarra invierte 22.000 euros en reparaciones tras la caída de una plancha ignífuga**

La Unión Temporal de Empresas (UTE) responsable de la obra del túnel de Bentazarra de la A-8 ha destinado 22.000 euros en trabajos de revisión y reparación de la citada infraestructura viaria, tras la caída el pasado mes de diciembre de una plancha ignífuga al firme de la misma, según ha informado hoy el diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, en la correspondiente comisión de las Juntas Generales.

Pradales ha comparecido a petición del grupo Popular Vizcaíno (PP) para explicar los trabajos de reparación que se han llevado a cabo en el citado túnel, que han corrido a cargo de la UTE responsable de la obra, abierta al tráfico en 2013, al encontrarse la misma "en período de garantía", según ha explicado el Diputado foral. El incidente ocurrido con la plancha ignífuga fue debido, según Pradales, a "una mala ejecución de la junta, un vicio oculto que fue además descubierto dentro de las revisiones que realiza el propio servicio de mantenimiento de Túneles de Bizkaia".

### **POLÍTICA DE PEAJES**

Por otro lado, el diputado foral de Desarrollo Económico ha explicado también en la Comisión los decretos forales por los que se actualizan las cuantías del peaje de los túneles de Artxanda, la AP-8 y la Variante Sur Metropolitana, junto con las respectivas Memorias Económicas.

Pradales ha aprovechado su comparecencia para recordar que su Departamento está trabajando en "una revisión del modelo tarifario" en la Red Viaria dependiente de la Diputación, que será presentado en Juntas Generales. Para el Diputado foral de Desarrollo Económico, el principal objetivo de esta iniciativa es "ver cómo podemos aligerar los costes que soportan las personas usuarias garantizando la sostenibilidad económica y las futuras inversiones".

El portavoz del grupo juntero EH Bildu, Zigor Isuskiza ha criticado el sistema actual de peajes de la Diputación, que ha calificado de "injusto y longevo". "Deben reconocer que han estado cobrando en una autopista lo que gastaban en otra, y que han estado quitando a unos usuarios para que otros y otros no paguen", ha afirmado Isuskiza, quien ha instado a Pradales y al PNV a "aceptar los términos del debate social y comprometerse a reorientar el problemón que han generado".

El representante de EH Bildu ha asegurado que "la AP-8 estará debidamente rentabilizada en 2016, sus peajes generan beneficios y con el sistema actual generarán más de 1.200 millones en los próximos años, sistema con el que la SuperSur generará casi la misma cifra de pérdidas, 1.050 millones". También ha apuntado que la deuda de Interbiak "asciende a 875 millones de euros".



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

En su respuesta, Imanol Pradales ha asegurado que "es falso que la AP-8 esté amortizada ni que genere beneficios". Por su parte, el portavoz del grupo juntero Nacionalistas Vascos (EAJ-PNV) Jon Andoni Atutxa, ha calificado de "mantra" las acusaciones de EH Bildu.

En su intervención, el portavoz del PP Jesús Isasi ha señalado que las subidas tarifarias "no respetan la Normativa Foral en materia de incrementos en función del Índice de Precios al Consumo (IPC)", lo cuál ha sido rebatido tanto por el portavoz del grupo juntero Nacionalistas Vascos Jon Andoni Atutxa, como por el del grupo Socialistas Vascos (PSE-PSOE) Joaquín Colmenero.

La portavoz del grupo Podemos Bizkaia Neskutz Rodríguez ha pedido una mejor gestión de los descuentos y bonificaciones a las personas usuarias de estos viales, las cuáles, en su opinión, "se aplican demasiado tarde".